

ERABAKIA, 2015eko OTSAILAREN 12koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, KONTABILITATE ETA AURREKONTUEN GERENTEORDETZARako "BULEGOKO BURUA" LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA, 2015eko URTARRILAREN 8koa, EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2015eko urtarrilaren 8ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2015eko otsailaren 4ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko errektorearena (2013ko otsailaren 13ko EHAA)
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2014ko ekainaren 23ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Kontabilitate eta Aurrekontuen Gerenteordetzarako "Bulegoko Burua" lanpostua Zerbitzu eginkizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2015eko otsailaren 16ko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Pertsonalaren Gerenteordetzari, Aurrekontu eta Kontabilitate Gerenteordetzari, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar daskioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2015eko otsailaren 12an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko EHAAn).

GERENTEA

Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteche



I. ERANSKINA

**2015eko OTSAILAREN 12ko ERABAKIA, UPV/EHUko GERENTEARENA
KONTABILITATE ETA AURREKONTUEN GERENTEORDETZAraho
LANPOSTUA ZERBITZU EGINKIZUNEN ERREGIMENEAN EMATEA
EBAZTEN DUENA (2015eko URTARRILAREN 8ko ERABAKIAREN
BIDEZ IRAGARRITAKO DEIALDIA)**

Esleipenduna: GERMAN GAZTELUITURRI FERNANDEZ

Erref.: F113

Zenbatgarrena: 37

Taldea: C/D

Eskala edo kidegoa: Administratiboa/Administrari Laguntzailea

Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun-data: 2014/01/31

Langunea: Kontabilitate eta Aurrekontuen Gerenteordetza

Campusa: Bizkaia

Ondorioetarako data: 2015eko otsailaren 16a

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU EGINKIZUNA - 15/01/8 DEIALDIA

1326	F113	Bulegoaren Burua				Hor. 37	HE 2;14/01	AURREKONTU ETA KONTABILITATE GERENTEORDETZA																						
ADJ	DNI	DEITURAK, Izena	ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN.		EMANDAKO SERBITZUAK GUZT.	F = Taldea		L ≈ Taldea		F & L ≠ Tald		EHUn ZERB.		F = Taldea		L ≈ Taldea		F & L ≠ Tald		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	HIZK.	EUSKARA		ELKAR.
					Urteak	Punt.		Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	G	↔	Punt.

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionariak.

R	14589857Z	BENITO AGUADO, JOSE VALENTIN		32,2000	26	11,7	18,00	156	15,60			50	5,00	206	18,00										16	-3	0,5	2,00			3	0		
ADJ	14595691Y	GAZTELUITURRI FERNANDEZ, GERMAN		30,2000	26	11,7	18,00	165	16,50	35	3,50			200	18,00	24	2,40	40	4,00					64	6,40	16	-3	0,5			2	0		
	22723780X	BUSTILLO VILLAN, ANA ISABEL		29,9000	22	9,9	18,00	180	18,00					180	18,00			10	1,00					10	1,00	16	-3	0,5	1,50			2	0	
	20174885K	ZARZA BASABE, MARIA		15,6000	6	2,7	7,40	48	4,80			19	1,90	67	6,70					7	0,70	7	0,70	18	-1	3,5	2,00			3	0			

d) Behin behineko funtzionariak.

	16044967Y	BARRENCUA ALONSO, AMAIA		18,6500	12	5,4	11,50	45	4,50					45	4,50	34	3,40	40	4,00					74	7,00				1,50	0,25	2	0	
	30670588	ABAD GREGORIO, LUIS MARIANO		16,9000	10	4,5	10,90	39	3,90					39	3,90	70	7,00	10	1,00					80	7,00				1,50		3	0	

R: Uko egin